

Session 2010

**CONCOURS SPECIAL (EXTERNE ET INTERNE)
DE RECRUTEMENT
DE PROFESSEURS DES ECOLES**

BASQUE

Epreuve Orale

Durée de la préparation : 30 minutes

Durée de l'entretien : 30 minutes

Coefficient : 2

L'usage de tout ouvrage de référence, de tout dictionnaire et de tout matériel électronique est rigoureusement interdit.

PIERRE DE LANCRE

Tableau de l'inconstance des mauvais anges et démons

1. *Pierre de Lancre, Parlamentuko kontseilaria, euskal herrietan sorginkeriaren aurkako burruka zabal eta gupidagabea gidatu ondoren, Bordelera itzulirik, jauregiko gelan bere liburu ikaragarria izkiriartzen hasi zen.*
2. *Behingoan, gauean arras berandu oheratzeaz zegoela, katu beltz bat erreparatu zuen ohe bazterrean. Katua uxatzen entseiatu zen, besoa gotorki altxatuaz, baina kontseilariaren mehatxuek ez zuten katua uxatu. Liburu eklesiastiko mardul bat jaurti zuen katuaren hanketara, baina katua ohepean gorde zen. Kontseilariak makila hartu eta, finean, iskanbila handiekin lortu zuen katuak leihotik salto egin eta alde egitea. Katua Bordeleko kaleetako gauerdian desagertu zen.*
3. *Biharamunean, kontseilaria kalean zihoala, atso batek oihu egin zion, eta euskal kutsuko frantsesez- ontsa ezagutzen zituen euskal kutsuko frantseseko hizkerak- aurpegira bota zizkion bere larderia eta hilketak. Atsoa herren zebilen karrikan barrena, inork kolpatu balu bezala, eta kontseilariak bezperako katua gogoratu zuen.*
4. *Kontseilariak itxaroteko agindu zion, gatibu hartu behar zuela, eta goardia eske hasi zen oihuka. Baina bi soldado harmatu kausitu zituenerako, atsoa iada ez zegoen han.*
5. *Kontseilariak ezin zuen deabruaren trufa berria berehala eta merezi bezala mendekatu.*
6. *Baina, etxera itzulitakoan, are grinatsuago jarraitu zuen bere liburua izkiriartzen.*

- **Joseba Sarrionandia** - *Han izanik hona naiz* – Ipuinak –
Elkar-
Lehen argitaraldia : 1992 -an

Hiztegia :

gupidagabea: impitoyable

Erreparatu : ohartu

Mardul : aberats *gatibu*: preso

Iskanbila : turbulence

hizkera : nabardura

atso : emazte zahar

herren : maingu, zainkü

kutxu : herexa

Session 2010

**CONCOURS SPECIAL (EXTERNE ET INTERNE)
DE RECRUTEMENT
DE PROFESSEURS DES ECOLES**

BASQUE

Epreuve Orale

Durée de la préparation : 30 minutes

Durée de l'entretien : 30 minutes

Coefficient : 2

L'usage de tout ouvrage de référence, de tout dictionnaire et de tout matériel électronique est rigoureusement interdit.

donibane zibururen

In
g
u
r
r
a
n
.

Goizeko alban ideki ordu itsas alderat begiak
ikus ditazke, zilar distiran, itsasoaren hegiak ;
itzuli ordu hona nun diren eskuen pean mendiak.
Ederragoko xokorik ote du gure mundu handiak.

Doniban'eta Ziburu ditu agertzen lehen argiak
zoin diren leku paregabeak, ederrak bezin garbiak ;
anai-arrebak direla ere erran baititake biak,
Urdaxuriak berexten ditu ta bateratzen zubiak.

Alde batetik eta bertzetik, zonbat untzi ur gainean
horier esker ez ote dira gehienak ari lanean ;
denen ona da itsas aldetik zerbeit agertzen denean
langabeziak ikaratuak gauden gaurko egunean.

Gauaz nahi bada freskura hartuz bere leihoa ideki
arrantzaleak ikus ditazke itsas zabalerat gaki,
bertzeak aldiz berari kendu dioten ona ekarki,
gu lotan gauden ordu goxotan behar baitute hauk jeiki.

Baserriaren edergailua gure xokoak ukan du,
gaur zorigaitzez horiek ere sobera zauzku bakandu ;
etxe berriak egin beharrez xaharrak dituzte kendu
behi ta ardien hazi lekuak gaur hiri bat ematen du.

Gora ditzagun dantzari eta berdin kantari taldeak
Euskal Herriak dauzkan dohain ta aberastasun jabeak ;
kofoin bererat beren ezitia ekarki duten orleak,
gure kultura eta hizkuntza lagun ta salbatzaileak.

Gure bizian ibili behar urrats bortitz eta gudu.
eginbidea zer den herrian denek jakin behar dugu
elgar lagunduz herria altxa izan dezagun helburu.
Beti bi izar izan ditezen Donibane ta Ziburu.

XANPUN.



MAIATZ 5 1983